

OLERKIAK

MALKOZKO ISTORIO BAT

Kondaira mazedoniar batek dioenez, Prespa lakua maitasunezko negarrekin sortu zen Pelagonian.

Elezaharrak dio Prespa laku handia dagoen tokian behin herri bat izan zela. Egun batean tokiko basoetan zebilela, herriko erregearen semeak ninfa bat ikusi zuen. Haren edertasunak ez zuen parerik, eta ez zen konparagarri gainerako herriko neskekin. Bere izenaz galdetu ziolarik, boz xarmangarriz erantzun zion: “Nereida”. Erregearen semea berehala maitemindu zen ninfarekin, eta geroztik askotan joan ohi zen baso hartara hura ikustera, eta haren eskua eskatzera ezkon zitezten. Erregearen semeak bere aitaren lurraldearen aberastasun oro eskaintzen zion, bere ondoan erreinuko erregin izateko.

Baina ninfak eskaintza eskuzabal hari ezetza eman zion, ezin baitzuen ezkondu hilkor batekin ondorio lazgarririk gabe bere ezkongaiarentzat nahiz aberriarentzat. Erregearen semeak ezin zuen imaginatu horrenbesteko gertaera ikaragarriarik, eta ezin zuen ninfarekiko maitasuna ahaztu; beraz, gau batez ninfa bahitzea erabaki zuen eta berarekin ezkontzeko onartu arte giltzapeturik izango zuen.

Senar-emazte izendatu ziren halako batean, eta une hartatik, zerua ireki zen bat-batean eta ikaragarritzko euri-jasa erori zen. Ez zuen atertu harik eta herri osoa urpean gelditu eta herriar guztiak ito ziren arte.

Horren emaitza da gaur egungo Prespa lakua, Mazedoniako Pelagonia eskualdean.

Istorio honen moraleja honako hau da: emakume batek ezetz esaten duelarik, benetako ezetza da.

EURIAREN AURRETIK

Zeru ilundua
txoriek zeharkatzen dute,
jendea isilik dago,
neure odolak min du itxaroten.

Zeru goibeldua
txoriek zeharkatzen dute,
jendea isilik dago,
neure arimak min du itxaroten.
Jainkoaren Amari erregutu diot,
otoi,

Treskavec monastegian kandela bat pizturik,
itzul dadin ene maite galdua,
aunitz maite ninduen hori,
ni haurdun gera nadin.

Biziminez nago,
bizitzeko gogoz,
eta erdiminez egon nahi nuke
ene maitearekin.

Zeru ilundua
txoriek zeharkatzen dute,
eguzkia ezkutaturik,
jendea isilik dago
neure odolak min du itxaroten.

Ainara Maia Urroz

Bitola, 2018ko urriaren 30a, asteartea